

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresarentzat oinarrizkoak izango dira giza-baliabideak, horregatik garrantzi handia emango diegu gure bost buruzagien ikasketei eta gaitasunei: Sortzaile guztiek **ikasketa ezberdinak** izan arren, guztiak beharrezkoak izango dira proiektuaren garapenerako.

Hasteko, June **nutrizionista** da, Gasteizen ikasi duena eta jakintza handia duena elikagaien maneiuari buruz. Bera errezetak sortzeaz arduratuko da. Eider **informatikaria** da, Bizkaian ikasi du eta produktuaren programazioaz, web orrialdearen sorreraz eta dendeikiko harremanaz arduratuko da. Natalia **ingeniarri elektronikoa** da eta bera produktua arazorik gabe sortzeaz arduratuko da. Irene **filologoa** da, hainbat hizkuntza dakizki eta produktuaren errezetak eta informazioa beste hizkuntzetara itzuliko ditu. Amaia **mediku endokrinoa** da, eta errezetak arazogarriak ez izateaz arduratuko da.

Oso garrantzitsuak izango dira gure langileak ere, haiek gabe ezingo dugulako ezer muntatu. Lehen esan dugun bezala, 10 izango dira eta gehienak teknikariak izango dira.

Horretaz aparte gure **hornitzaileak** (espainiarrak izango direnak gertuko merkataritza sustatzeko eta beste herrialdeetan egon litekeen esplotazioa ekiditeko) oso beharrezkoak izango dira ere bai, haiek gabe ezingo dugulako NFWa sortzeko piezak lortu.